



**2017KO ABENDUAREN 1EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko abenduaren batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko azaroaren 17an egindako bilkurako akta.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzionala puntuan, aktan ez dela oso egoki jasotzen izandako eztabaidaren inguruko aipamena.

Hau esanda utzi eta, gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da aho batez.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 120 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (52.887,62 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- SAN PRUDENTZIO 15-23 GUNEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio 15-23 guneko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Idoia Goenaga eta Garikoitz Alkorta arkitektoek eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen 2. obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (26.960,32 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Artzamendi S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

IV.- SAN INAZIO ZUBIA HANDITZE LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-

San Inazioko zubia handitzeko proiektuaren lanen obra zuzendaritza daramaten Mikel Salaberria eta Amaia Salaberria ingeniariak lanen 1. obra egiaztagiria egin dute, lanen likidazioa dena. Lehen obra egiaztagiri eta likidazioa denaren zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA BERREHUN ETA SEI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMO (127.206,34 €), BEZ barne, da. Lan hauek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOAK .-

- Ibilgailuen aseguru.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuko foru diputatuak 2017ko azaroaren 6ko foru aginduaren bitartez, SEGUROS BILBAO (IFZ.:A48001648) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ibilgailuen aseguru estaldurak emateko esparru akordioa (X-17015) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko azaroaren 27an emandako txostenaren araber, proposatu du ibilgailuen aseguru estaldurak emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 3/2011 Legearen 198. artikulari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SEGUROS BILBAO enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru estaldurak emateko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X17015) SEGUROS BILBAO enpresari (IFZ.: A48001648) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- SEGUROS BILBAO, N.I.F.:A48001648, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, ibilgailuen aseguru estaldurak gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako akordioak hartu ditu:



- Joseba Bolinaga, Txindoki Atletismo taldea.- 2017ko azaroaren 22an egin zen "Josetxo Imazen oroimenezko XVII. Lasterketa" antolatzeagatik 700€ko diru laguntza ematea.

- Kirol taldeei diru laguntzak.- Herriko kirol talde ezberdinei, 2017ko jarduketagatik, ondorengo diru laguntzak ematea:

KIROL TALDEA	ZENBATEKOA
LKE - futbol taldea	7.520 €
LAPKE - pilota taldea	1.578 €
Ordizia igeriketa taldea	605 €
Txindoki atletismo taldea	770 €
Amalur mendizale taldea	800 €
Txirrindulari elkarte	324 €
Antzar korrikalari taldea	1.246 €
Goierri Gorri futbol kluba	3.785 €
GUZTIRA	16.628 €

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du lehengoan egun berean hiru bilera egin zirela, kirol batzordea, kultur batzordea eta Olentzeroren ingurukoa, eta pilatu xamar gelditzen dela denak batera egitea.

Alkateak erantzuten dio ez dela erraza asmatzea, ze hiru egun ezberdinetan jarri ezker ere ez delako oso eroso izaten, eta badakiela bilera hauek deitu dituenak aleginak egiten dituela guztientzat ahalik eta egokiena izan dadin.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

